

Bezeroekiko erlazioa:

Gure bezeroekiko **harremana pertsonala eta automatizatu**a izango da. Produktua **web-gunean** salduko da.

Gure bezeroek **gurekin harremanetan jarri nahi izanez gero, enpresaren bulegora joan daitezke** eta bertan aurrez-aurre bezero bakoitzari erantzungo diegu.

Internetik gure enpresako **posta elektronikoaren bidez eta telefono zenbakiaren bidez kontaktuan jarri daitezke** ere bai.

Guk saltzaile moduan **seriotasuna, konfiantza eta itxura ona** islatu beharko diegu gure bezeroei, hortaz, gure bezeroekiko konfiantza bermatzeko on-line egindako erosketak horiek **produktua heltzen den momentuan ordaintzeko aukera** edukiko dute bezeroek.

Gainera, kezkaren bat edo arazoren bat edukitzekotan **produktua itzultzeko aukera eskaintzen dugu**. Gure profesionaltasuna bermatzeko, **telefonoa eta emaila web gunean agertzeaz gain, produktuaren etiketan ere agertuko dira**, internet erabiltzerakoan arazoak dituzten bezero horientzat.

Gehigarri moduan bai telefono edo emailaren bidez bai web gunearen bidez **komentarioak uzteko gutunontzia edukiko dute eskura**, gure bezeroen iritzia nahiz arazoketako konponbidei buruzko ideiak jartzeko tokia nahi dugulako. Gure **bezeroen iritzia jakinda gure produktua hobetu dezakegu** eta horrela bezeroen **konfiantza, gure profesionaltasuna eta gure seriotasuna** hobetuko dugu.